

ZER BERRI GAZTEAK UDALERA JO DUTE LOKAL ESKE  
SUTONDOAREN EPELEAN BOLONDRESEN LANA OIERRI LAGUNTZEKO

# pipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 103. alsa 2005ko urtarrilaren 14a




## SAPA itxita armagintzari agur

Mapa de la Villa de Plasencia Autor de Esta obra sin mas dicitiva ni proscritiva quala de su Natural. Corno y aplicacion fabrica y obra por todo su Distinguido y Direc. Comandante. Excmo. Sr. Don Juan de Soto. en Paris de la Imprenta de la Reyna. Año 1762.



*Zorionak eta urte berri on!*



**Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean**

**GOL**

**GOL industriak S.A.**  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
**20590 SORALUZE**

# **Ion Murgizu Pinturak**

**- Margoketa orokorren -**

**Empapelatuak,**

**Estukoak**

**Fatxadak**

**Eskilarak eta patioak**

**Pintura industrialak**

**Telefona 943751324**  
**Mugikorra 652777030**  
**Ezoziko etorbidea 24 2 behea**  
**20590 Soraluze**



## Kalean gaude

**GARAZI ARIZAGA**

**HARITZ ARIZAGA**

(Soraluzeko 12-16 urte bitarteko gazte-  
en izenean)

Aupa Soraluzetarrak:

Hemen elkartu gara, egunero bezala, lur hotzeko frontoi honetan, gure arazo-aren berri emateko. Betiko lez, helduak tabernako edo beste edozein leku itxiko epelean dauden bitartean hemen igarotzen ditugu guk egunak eta egunak. Itxura denez herri honetan ez baitago lokal hut-sik, nahiz eta denok jakin hori horrela ez dela.

Legeztatutako lokalik ematen ez ditugenez, okupazioz moldatu behar izan dugu. Beste irtenbiderik aurkitzen ez genuenez Haur Hezkuntzako beheko solairuko aldagela ez erabilitan egoteari ekin genion, baina ez ezkutaketan jolasteko, hotzetik babesteko baizik.

Gainera, beste behin gazteok gaizkile bezala agertu gara Euskal Herri osoaren aurrean. Joan zen urteko, Abenduak 31-ean Diario Vasco egunkarian aldagelen arazoekiko gehiegikeriak agertu ziren. Hau herriaren berri ematen duen kazetariak (Nerea Isasti-k) idatzi zuen. Jakin ezazue ez gaudela batere ados, gure aurkako gezurrak esateaz gain ez zuelako gure egoeraren berri eman.

Urtarrilaren 5-eko Udalbatzarrean izan ginen eta bertan gure eskaria azaldu genuen. Planteatutako arazo eta galderen erantzunak ez zitzaizkigun egokiak iruditu.

Hasteko lokalik ez zegoela entzun ge-

nuen, eta jakina da Soraluzen lokalak sobran daudela. Bigarrenez, ia erantzun guztiak errepikatua izan ziren "kontuan hartuko dogu", baina erantzun horrek ez digu ezertarako balio. Zer eta zertarako hartuko duzue kontutan? Polikiroldegiko zinea aurten konpoduko dela ere esan ziguten, baina sei urte goaz berdina entzuten, sinesgarria al da?

Pleno aretora joan baino lehenago, alkatearekin ere egon ginen berrikeretan. Alkateak dirurik ez zegoela eta, zaila izango zela lokal bat aurkitzea... Dirurik ez dago. Hori horrela bada; ez dugu ulertzen, Udaletxera sartu eta, adibidez, alkatearen bulegoa ikustea. Negozio gizon aberats batena ematen du. Gehiegi al da zeuek zeuen soldatak igo beharrean, diru hori herrirako bideratzea? Gazteondako hain zuzen?

Orain dela 30 bat urte, Soraluze gazteondako herri polita zen. Zine bat baino gehiago, Dantzari taberna, joku aretoak... eta gaur, zer dauka? Denborakurrera doaz eta gauzak hobera joan beharrean atzerantz gelditzen dira guretzat.

Ondo pasatzeko, adibidez, zinemara joateko, Soraluzetik irten beharra daukazu. Autobusen ardurapean gelditzen gara eta hori horrela, zenbat kostatzen da, ia edozein etxeren azpian dagoen tailer bati lau kristal jartzea, sarraila bat eta gainontzekoa gure kontu.

## Telegrapak

Piñun piñun!. Stop. Plazentzian ez da gehixao armagintzarik. Stop. "De las armas" kendu leikixo ya!. Stop. gelditu deila historiarako. Stop. liburuetan. Stop. armagintzako historixa danan moduan. Stop. ze apenas gelditu dan mendetako jardun horren arrastorik herrixan, ezta?. Stop. "Armagin" en kalerik ez dago. Stop. ez museorik. Stop. ez historia plakarik (erregetxiak, Euskalduna...) . Stop. ez eskulturarik. Stop. ez armagintzaren kontrako pintadarik. Stop. ez kamisetarik. Stop. ez hitzaldirik. Stop. ez azterketak egiteko bekarik. Stop. ez komentariorik. Stop. ez armarik (salbuespenak albuespen). Stop. ez kañoirik. Stop. ez ezer... Stop. bakezaliak garalako izango da. Stop. ja, ja!. Stop. herrixaren izenian, zaharren berbaldi baztertueta, danborradan eta Ramiroren liburueta bakarrik gelditu da gure iraganaren berri. Stop. bost mende pasatu ditugu armagintzan. Stop. mundua herri kokkor honetako armaz beteta dago. Stop. eta gu enteratu bez!. Stop. mingarrixa da protagonista zuzen eta historialari sen apur bat izan dabenedako. Stop. eta gabezia gogorra gatziondako. Stop. Plazentziarrok armaginak izan gara. Stop. armetatik jan dogu eta jarraituko dogu jaten. Stop. eta gehienok ez dogu ezer egin. Stop. ez alde ez kontra. Stop. ez gogoratze-ko eta ez ahazteko. Stop. gaziendako lokalik ez dago. Stop. Atxa Memoriala galdu da... Stop. ze istoria tristia gurial!. Stop. ez ahaztu!



**Argitaratzailea:**

Pil-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.  
Telefona 943 75 13 04  
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkarte/UE  
pilpilean@euskalnet.net

**Erredakzio burua:** Egoitz Unamuno

**Erredaktoreak:** Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Arizabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

**Publizitatea:** Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

**Logotioa:** Jon Gabilondo  
(943751304 tel.)

**Banaketa:** Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

**Inprimategia:** Gertu Koop.

**Azala:** Pablo Galarraga

**Diseinua eta Maketazioa:** Aitor Madrid

**I.Z.K.-a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

*Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.*

*Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.*



SORALUZKO  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## Erreportaia

*SAPA itxi eta herriko azken armaginek Andoainera joan behar izan dute lantoki berrira. Amaitu da Soraluzeko armagintza, XV. mendetik XXI. erarte etenik gabe iraun duen ofizioa.*



## Zorion agurrak



**Amaia Agirre**  
Urtarrilaren 22an  
30 urte  
Zorionak!!!  
Ondo pasau zure  
egunian!  
Etxekuen partetik.



**Hodei Valdivieso**  
Urtarrilaren 9an  
Urtebete  
Zorionak!!!  
Segi hain alaitsua  
izaten!  
Etxekuen partetik.



**Ivan Martin**  
Abenduaren 21ean.  
25 urte  
Zorionak!  
Segi beti bezain  
jator!  
Etxekuen partetik.



**Nerea Atxotegi**  
Urtarrilaren 18an  
6 urte  
Zorionak potxola!!!  
Muxu haundi bat!  
Etxekuen partetik.



**Ianire Makinai**  
Abenduaren 16an.  
6 urte  
Zorionak!  
Muxu haundi bat!  
Aita, ama eta etxe-  
kuen partetik.

### OHARRA

Zorion agurretarako argazkiak Iratxo Goxodendan laga eta jaso ditzakezue (dohain). Argazki zaharren bat argitaratu nahi izanez gero ere Iratxon laga dezakezue. Gustora jasoko ditugu.

### jaiotakoak

Julen Muguruza Garzia

### hildakoak

Inocencia Txurruka Mayora  
Gabriela Garcia Calderon



### BEKAK

#### Film laburren ekoizpenerako laguntzak

Zinematografiaren eta Ikus-entzunezko Arteen Institutuak film laburrak ekoizteko laguntzak emango ditu. Gehienezko zenbatekoa 30.050,00 eurokoa izango da film bakoitzeko. Informazio gehiago 91 7017000 telefonoan. Epea: ekainak 17.

#### Praktikak enpresetan

Argo proiektuan parte hartu ahal izateko, Espainiako edozein unibertsitate publiko zein pribatuko unibertsitateko tituludun izan behar da. Argo proiektua Leonardo Da Vinci Mugikortasunerako Europar Programaren barruan dago. Bere xedea Europako enpresetan hezkuntza-praktikak egiteko aukera ematea da. 800 beka daude eskuragarri. Bekek 6 hilabeteko iraupena dute batez beste. Informazioa: [www.beca-sargo.net](http://www.beca-sargo.net). Epea: urtarrilak 31.

### IKASTAROAK

#### Arte garaikidearen hastapenei buruzko ikastaroa

Artium museoak antolatuta, otsailaren 16tik ekainaren 8ra bitartean luzatuko da, asteazkenero, arratsaldeko 19:00etatik 21:00era. Informazio gehiago 945 209020 telefonoan.

### LEHIAKETAK

#### Urruzuno literatura lehiaketa 2005

Eusko Jaurlaritzak antolatua, 2004-2005 ikasturtean Bigarren Hezkuntzan diharduten ikasleentzat. Bi kategoria bereziko dira eta bakoitzeko 20 sari banatuko dira. Gai librean, prosa, poesia nahiz bertso paperak aurkeztu ahal dira. Informazio gehiago: [www.euskadi.net](http://www.euskadi.net).

### HERRIKO IRAGARKIAK

#### Esperientziadun kamarera

Esperientziadun kamarerak bere burua eskeintzen du herriko jatetxe zein tabernaren baten lan egiteko. 649311651

## Gutunak

### LOKALA, KULTURA, GAZTEAK

Aurreko astean, 14-18 urte bitarteko gazte batzuk Udaletxera etorri ziren, aisialdiko gune baten eske.

Bada urtebete baino gehiago, musika, antzerkia eta beste ekimen batzuetarako lokal eske, beste gazte batzuk Udaletxera gerturatu zirela.

Badira 6 urte zinerik ez dugula.

Ez dugu ekintza kulturalak egiteko udalgunerik.

Gazte batzordeak ez du aurrekonturik.

Bada ordua Udaletxe honek herritar askoren eskaerak kontutan hartuta zerbaitegin dezan:

- Gaztetxoko bat sortu. 12-18 urte bitarteko gazteentzat.

- Lokalak bideratu talde ezberdinei.

- Kultur-etxe baten proiektua martxan jarri.

- Zinea konpondu.

- Gazte-batzordea diruz hornitu.

Legegintzaldi osoa pasatu baino lehen arazo guzti hauei irtenbidea bilatu behar zaie, eta 2005eko aurrekontuak laster onartuko direnez, dirua jarri behar litzateke arazo larriok konpontzeko. Soraluze herri bizia behar dugu.

Monika Muro

Soraluzeko Haizeak-eko zinegotzia

**JAVIER ALONSO ZELAIETA**  
434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**  
MEDIKU ESTOMATOLOGOIA

ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

Telefonoa 75 24 09

**ARRANO  
tabernia**

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

**etxera**



## Zer irizten dotsazu?

Abenduaren 30ean Eusko Legebiltzarrak Ibarretxe lehendakariak aurkeztutako Estatutu Berriaren Proposamena onartu zuenetik egoera politikoa pil-pilean dago. EAJ-EA-EBk babes-ten duten plana, Batasunaren Anoetako bake proposamena, PSEEn estatutuaren erreforma... hainbat proiektu daude mahai gainean eta bakoitzak bereari eusten dio.

## Egoera politikoa aldatu eta adostasunik lortzeko aukerarik ikusten dozu?



**Jazinto Gantxegi**  
78 urte jubilatua  
Aldaketia derrigor egon bihar da. Euren artian berba egin bihar dabe, baina bihar dan moduan, ze oin berba larregi egiten dabe baina gaizki. Ados jarri bihar dabe danen artian.



**Ane Ansola**  
34 urte langilia  
Nik espero dot baietz, zeozer ari dira egiten behintzat. Nik pentsatzen dot danak bere partetik jartzen badabe adostasun bat lortzeko auke-  
ra egon leikela. Igual bai. Baina euren borondatiaren arabera izango da hori.



**Cristina Maqueda**  
27 urte etxeandria  
Berdin jarraituko dau, inoiz ez da aldatu eta ez da inoiz aldatuko. Politikoak ez dira gai euren artian kompontzeko eta gu gutxiago.



**Roberto Retolaza**  
41 urte tornillerua  
Gauzak aldatzeko danak elkartu bihar dabe eta ez dabe egiten. Hemen bihar dana da "plan" bat danen adostasunakin eta danak ados egotia zaila ikusten dot.



**Juan Antonio Garitano**  
63 urte jubilatua  
Nik uste dot egoeria aldatu-ko dala, Ibarretxe planak ez dau urtengo aurrera baina ez dotena ulertzen da zergatik dauken bildur hori Madrilen ez badau urtengo. Baina nere ustez zeozer aldatuko da ze gero katalanak be hasiko dira bere estatutuarekin gora eta behera.



**Enara Ansola**  
24 urte etxeandria  
Ez dabe ezer konponduko. Eta hemen egingo da azke-  
nian Zapaterok esaten dabe-  
na. Nere ustez politikuei ez jakue interesatzen akordio batera heltzia.

## Kontulan Aholkularitza S.L.

Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tlfonoa: 943 75 17 82

20590 Soraluze  
GIPUZKOA

## Juan Mari Arraindegia

Eguneroko arraina eta konjelatuak

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69



## Gipuzkoa Etorbideko bizilagunek Udalera jo dute babes eske



Gipuzkoa Etorbideko 4, 6 eta 8. atarrietako bizilagunek, etxebizitza berrien eraikuntzaren ostean euren eraikinean jasandako kalteen berri eman diote Udalari. Joan zen abenduaren 20an bildu ziren Udala eta bizilagunak Udaltxean, eta bizilagunek, etxebizitza berrien promotore eta eraikuntza enpresari, eragindako kalteen ardura bere gain hartu dezala eskatuz bitartekari lanak egiteko eskaera egin zioten Udalari.

Bizilagunen ordezkariekin esanetan, 2003an etxebizitza berriak egiteko zulaketa lanak hasi eta berehala agertu omen ziren zartadurak etxeetan (ate eta leihoak ixteko arazoak ere bai). Eraikitze lanak aurrera egin ahala, zar-

tadura eta kalteak ere handituz zoazela ikusita, Udalari eta eraikuntzakoei gertatzen zenaren berri emateaz gainera, inguruaren txosten teknikoak eta azterketa geologikoak egin zituzten. Azterketa horiek orain arteko kalteen eta etxebizitza berrien eraikuntzaren arteko harremana baieztatzen dute eta bizilagunen lasaitasunerako, etxearen zimenduak seguru eta egonkor daudela eta etorkizunean kalteak handitzeko arriskurik ez dagoela ere ba omen diote.

Bizilagunen abokatuak eraikuntza enpresa eta promotoreei orainarteko kalteen ardura eskatu arren, entzungor egin diete eta azkenean Udalarera jo dute babes eske.

## Soraluzeko presoak bakartasunean euren eskubideen alde



Etixeratek jakinarazi duenez, Euskal Preso Politiko guztiek txandan txandan bere zeldatik urten gabe emango dituzte hainbat egun, euskal-presoen Euskal Herriratzea eskatu eta prozesu politikoan parte hartzeko duten eskubidea aldarrikatzeko. Pedro

Jose Etxeberria soraluzetarra barikutik dago bakartasunean eta bere ostetik beste presoek jarraituko diote. Argazkian, joan zen abenduaren 31an Etxerateratek antolatuta Plaza Barrixan "Euskal presoak Euskal Herrira" lemapean egin zen elkarretaratzea.

## Gabilondo Debegesako lehendakari

Joan zen martitzenean, Debarrenaren Garapen Ekonomikorako Eraikundeak, Debegesak, bere lehendakari izendatu zuen Oskar Gabilondo Soraluzeko Alkatea. Legegintzaldiaren hasieran Soraluzeri egokitu zitzaion lehendakaritza eta ordutik Alberto Sudupek bete zuen kargua. Orain Oskar Gabilondok beteko du kargua legegintzaldia amaitu artean.

## KZ Guneko ikastaro berriak aukeran

KZ-Guneak interneteko ikastaro berriak eskeiniko ditu urte berriarekin batera. Izena Udalean edo KZ-Gunean bertan eman dezakezue (astearte goizetan hil honetan eta arratsaldean datorenean).

Banka Elektronikoa: Kontu mugimenduak, intsuldaketak eta transferentziak Interneten (G) - KZ-Mikroenpresak: Prestakuntza

Data: 05/01/18 - 05/01/25

Ordutegia: Astearte 19:00etatik-21:00etara

Asteburu bat Euskal Herrian (E)

Data: 05/01/18 - 05/02/15

Ordutegia: Astearte 10:00etatik-12:00etara

Adobe Acrobat Reader (E)

Data: 05/02/1

Ordutegia: Astearte 18:00etatik-20:00etara

Ardoa ezagutu (E)

Data: 05/02/22 - 05/02/22

Ordutegia: Astearte 16:00etatik-18:00etara

## Aldaketak etxeko laguntzen baremoetan

Udaleko Ongizate Sailak jakinarazi digunez aldaketak ezarri dituzte etxeko etxeko baremoetan. Orain artean 30 mila euroko sarreretatik gorako sendiei kuota igoera ezartzen bazitzaie, hemendik aurrera 18 mila euroko sarreretatik gorakoei ezarriko zaizkie. Kuotak, hileko 16 eurotatik 60 euro bitartekoak izan dira eta hemendik aurrera igoera izango dute sarreraren arabera. Diru sarreraren arabera kuota sistema ezartzea da helburua. Gaur egun 15 pertsona dira laguntza hau jasotzen dutenak. Bi motatako laguntzak; Etxeko lanetarakoak eta pertsonari zuzendutakoak. Lehenengoan sendiko sarrerak hartzen dira kontuan eta bigarrengoan pertsonarenak bakarrik. Interesa duenak Udalean egin dezake eskaera.

## Gazteak lokalak eskatu dituzte Udalbatzarrean



Joan zen urtarrilaren 5eko Udalbatzarrean, 12-16 urte bitarteko hogeitamarren bat gaztek, "gazteendako aisialdirako lokalak" eskatu zizkioten Udalari. Gazteek, 12-16 urte bitartekoendako aisialdian dagoen aukera falta salatzearekin batera, asteburuetan jende gaztea inguruko herrietara (Eibar, Elgoibar...) joateko hartzen ari den joera gero eta handiagoaz ere ohartarazi

zuten. Gobernu Taldeak bere aldetik, "alkatetzako ateak zabalik" dauzkatela eta 2005ean urtean "beharbada zinea konpontzeko lanak hasiko direla" jakinarazi zien.

Bestalde, Udalbatzarrean Iker Aldazabal alkateorde izendatzearekin batera, 2004ko urtarrileko errolda ere onartu zen, eta beraz, ofizialki 4.158 biztanle ziren orain urtebete herrian.

## "Energia bizi" erakusketa izango da ikusgai datorren barikurarte

Udaleko Ingurugiro Batzordeak jakinarazi digunez, "energia berriztagarrien berri emateko" EVEk (Ente Vasco de Energia) antolatutako "Energia bizi" izeneko erakusketa ibiltaria izango da ikusgai Erregetxean. Dagoeneko jarri dute karpa eta urtarrilaren 14tik 21era bitartean izango da ikusgai, goizez eta arratsaldean.

Erakusketa dela eta, hainbat herri-tarrek beren ezadostasuna adierazi diote Pil-pileani, "erakusketa ibiltari honen helburua, diruz lagundua dagoen eta gainera garestiago ordaindu behar izaten dugun ustezko energia berdearen propaganda" dela salatuz.



## SEGIk Euskararen egoeraren diagnostia egin du

Atzo, eguena, SEGI gazte erakundeak Sorluzeko gazteen euskara ezagutzaren eta erabileraren diagnostikoa eta plangintzaren aurkezpena egin zuen Gaztetxean. Bertan argi utzi zuten ezagutza eta erabileraren artean dagoen alde handia. Datu positibo moduan "eskola-tik urtetzen daberen gazte danak euskareraz ikasita dabe" la aipatu zuten "baina gero kalia ume eta gaztien %70ak bakarrik erabiltzen dau euskaria". Horren arrazoietako bat erdal hiztun bat euskal hiztunen artera sartzean automatikoki euskal hiztunek erderara jotzeko duten joera dela adierazi zuten. Beste arrazoietako bat "komunikabidiak ezartzen dituzten pertsonai eta esamolkiak sortutako giro espainola" dela azpimarratu zuten.

Gazte guneetan euskararen erabilera sustatzeko asmotan, SEGIk, bere plangintza honako puntuetan laburtu zuen: "alde batetik, motibazio kanpaina bat jarriko dugu martxan, euskarak jasotzen dituen eraso-eren kaleratzea ere egingo dugu, esamolde eta atxotitz euskaldunen erabilera sustatuko dogu eta azkena baina ez horregatik garrantzi gutxiagokua, norbanakuen konpromisua eskatuko dogu".

## Gripe kasu ugari herrian

Anbulategitik jakitera eman digutenez, azken asteotan sorluzetar askok jo dute medikuarengana, gripe sintomak direla eta. Urteroko kontua omen da garai hauetan. Bakunatatuko jenderik (adinekoak gehienak) ez omen da azaldu eta beste urte batzuetako gaixoen adin mailarekin alderatuta aurten jenede gazte asko gaixotu omen da. Hala ere, txarrena egunotan pasatu eta datozen asteetan normaltasunera itzultzeko itxaropena dute.



### MENDIZABAL

OKINDEGIA

Halebarren,10  
Telefona 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefona 943 75 13 99  
SORALUZE

**LAUDIN**  
PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      tf: 943752150  
138 Postakutxa      Faxa: 943752118

**SORALUZE**



# SAPA ixtearekin agur armagintzari



XVIII. mendeko Soraluez, Joseph Lamoten arma grabatuare zati honetan ikus dezakegu. Soraluezko etxe askotan dago irudi hau.

SAPA itxi eta herriko azken armaginek Andoainera joan behar izan dute lantoki berrira. Amaitu da Soraluezko armagintza, XV. mendetik XXI. erarte etenik gabe iraun duen ofizioa. Ofizio horrek eman zion hain zuzen ere ospea hiribilduari eta Placencia izenak "De las Armas" abizena hartu zuen XVIII. menderako (aurreko mendeetan Placencia eta Placencia de Soraluez moduan ere izendatzen zena). Gure herriak armagintzan egindako ibilbide luzearen laburpen bat osatzen saiatu gara.

## Lehenengo burdinolak

Herriko zenbait leku izen, Olalde, Olea, Mendiola, Gabolats, Iraola eta Ibarrola esaterako, burdinola zahar haien izendapenen aztarna dira. Plazentziakoa inguru aldapatsua zen eta hortaz, leku aproposa ubide edo erre-kasto ugariatatik zetorren ur korrontearen indarra aprobetxatzeko. Sortzen zen energiak gabi edo mailu handiak mugitzeko balio zuen. Mailuaren ondoan sute-gia jartzen zen burdina berotu eta kome-ni bezain moldagarri jartzeko. Burdinola ugari zen herrian eta horrela hasi ziren plazentziarrak burdingintzaren bidean lehen pausoak ematen.

## Lehenengo su armak Soraluezen

Adituen arabera, XV. mende bukaeran hasi ziren plazentziarrak lehenengo su-armak egiten. Arma zuriak (ez suzkoak) ziren ordura arte egiten zirenak: geziak, bombardak, aizkorak, pasabolantak, aiztoak, zerbatanak, espingardak, baleztak, ezpatak... Garai hartan sortu zen herrian olagizonen arteko elkarte bat, burdinolekako alkatearen figura eta guzti. 1526. urterako (XVI. mendea) Car-

*"Adituen arabera, XV. mende bukaeran hasi ziren plazentziarrak lehenengo su-armak egiten."*



"Infanteria de Marina Destacamento de Placencia de las Armas" 1898 urtean

los I enperadorearendako arkabozak (fusil erako su armak) egiten zituzten.

## Lehenengo enpresaren sorrera

Urteekin Soraluezko arma-produkzioaren sonak gora egin zuten. Horren adibide da Ortelliusen mapa (XVI. mendeko Gipuzkoa eta Bizkaia marrazten dituen), non 3 herri ageri diren Gipuzkoan besteak baino nabarmenago: Donostia, Tolosa eta "Placencia". Ospeak eta arma-produkzio ugariak, sistema gremiala ezartzera bultzatu zituzten. Horrela, 1573. urtean denak enpresa haundi bakar baten babesean batu ziren: "Fábrica de armas portátiles de fuego y blancas de guerra de la villa de Placencia".

Ejerzitoaren zerbitzura XIX. menderarte

XVI. Mendean bertan, erregetzari eman zitzaion arma-lantegiaren jabetza eta hortik aurrera era guztietako armak egin ziren Espainiako ejerzitoa hornitzeko, XIX. mendeko bigarren zatira arte. Horrela egin ziren herrian eta inguruetan fabrikatzen ziren armak bildu eta frogatzeko bi eraikin handi; erregetxeak. Lehenengo Erregetxea Errabal kalean egin zen (1573an) eta bigarrena, gaur Erregetxe moduan ezagutzen den lekuan zegoena (70. hamarkadan bota zena). Euren jarduna erregearen menpe ezarritako armaginek urte askotarako lana eta ogibidea ziurtatzea nahi izango zutelako pentsatzen da.

1862an errege-fabrika utzi eta merkatal-elkarte batek *Euskalduna* fabrika berria eraiki zuen (gaurko Kirolegia dagoen lekuan). Ondorengo urteetan atzerriko jabe desberdinak izan zituen fabrikak: 1888an *Maxim Nordenfel Company limited* firmak hartu zuen eta 1908an *Vickers*-ek (ingelesak). Azken honek gainera izen berria jarri zion fabrikari: *The Placencia de las Armas company limited*. Ingeles hauek izan omen ziren herrian "fooballian" egiten erakutsi zutenak ere.



Euskalduna fabrikaren argazkia.



Iturriak:

Erreportaia egiteko erabili dugun informazioa Ramiro Larrañagaren "Armeria Vasca" eta Soraluzeko Monografia Historikotik jaso dugu.

1935ean SAPA sortu zen  
1935ean, lantegia Sociedad Anonima de Placencia de las Armas (S.A.P.A.) bihurtu zen, kalibre haundiko eta txiki-ko artilleria kañoietan espezializatuz. Antiaereoak fabrikatzen ziren; baita "Somua" markako kamioiendako motorrak ere.

Gerratean eta gerra osteko urte batzuetan fabrikako langileria militarizaturik egon zen, nahi edo nahi ez ejerzitoko militar bihurtuz. urte horietan 1000 bihargin baino gehiago hartzera heldu zen Soraluzeko lantokia eta Sociedade-ak lantoki berriak ireki zituen Andoainen eta Beasainen. Azken urteetan produkzioa Andoaingo izen bereko lantegira eraman dute etengabe, aurten langileak ere eraman dituzten arte. Horrela amaitu da Plazentziako ofizioa, kittedo 5 mendetako historia, museo, erakusketa edo aztarma askorik utzi gabe, ixil ixilik, ia-ia tiro hotsik gabe.



XX. Mendeko kañoi fabrikako probadoreak Debako hondartzan kañoia ri eusten.

## EUGENIO MENDIOLA

*"Unibersidadia zuan hau ofiziua ikasteko!"*

*Eugeniok, bere aitak bezala, arma-gintza hartu zuen lanbide gerra osteko urteetan. 40 urtez egin du lan S.A.P.A.n. eta bertako oroitzapen ugari gordetzen ditu. "Pena haundia" hartu du Soraluzen armagintza bukatu dela ikustean.*

*"Ni lanian nenbillenian be zabaltzen zuan: bazoiala, bazoiala... zenbatek urten ete jok hori zala ta"*

**Noiz hasi zinan kañoi fabrikari lanian?**

41ian hasi nitzuan, aprendiz. Ajustadore ibili nitzuan gero eta kontrolian azkenengo urtietan.

**Ze arma klase egitten zan orduan?**

Kañoiak, 75-13, tankiandako piezak, ametralladorak, seglarak...

**Eta nora saltzen ziran?**

Edozein lekutara, baita Txinara be. Antiaereoak Arabia Saudira saltzen zittuan, dirua jekela eta...

**Aldaketarik ezagutu dozu lan egittetako eran?**

Bai, salto haundixa egon zuan Bofors antiaereo suekuekin. Adelanto asko ekarri juan biharrerako.

**Kanpotik jente asko etortzen zan?**



Eugenio Mendiola k berrogei urte egin ditu SAPAn lanean.

Asko. Bergarrak, Antzuolarrak, Azkoitiarrak...unibersidadia zuan hau ofiziua ikasteko. Atanillo pelotarixa be etorri zuan. Dana eskuz egitten zanian 2000 bihargin ibili ei zittuan.

**Zer sentidu dozu S.A.P.A. itxi dabenian?**

Guk asko sentidu juau. Andrian anaia eta aitta be bertako biharginak izan zittuan, gure aitta be probadoria zuan, Debara ta juaten zianak... familia-guztia. Ni lanian nenbillenian be zabaltzen zuan: bazoiala, bazoiala...zenbatek urten ete jok fabrikari hori zarata

hori zalako.

**Anekdotarik, gauza rarorik pasau da kañoi fabrikari?**

Gauza rarua gehixago normala baiño. Behin gauza triste bat pasau zuan: batzuek konpresoriakin fiestan zebizela haizia sartu atzetik eta hil egin zuan kanpotar bat. Franko fabrikari izan zanekea be goguan jakat: pasau zuan hor jente artian eta kittedo! Mendi guztiak fuzillekin zainduta jeuazen, guardia zibillak Karaketetik Elosuraino. Etxuan hamendik jente askok hanka egingo haura hil balebe.

# Gabonak 2004 argazkitan



Olentzero eta Mari Dominginek Plaza Barriko arbolapian banatu zituena erregaluak. Kalia kalejira ibili eta gero, gaztetxo ugari urreratu ziran. Mari Domingin kapeliakin eta Olentzerok puruakin goxo-goxo hartu zituena urreratu ziran gaztetxuak.



Hiru Erregiak erresidentzian izan ziran aittitta amameri bisita bat egiten. Negurako bufandak eta urte berrirako desiorik onenak eruan zituena erregalo. Iluntzian kabalgatan ibili ziran.



Iñuxente Eguneako Gaztetxeako Bertso Afarixan 40ren bat bertsozale batu ziran. Agirre eta Berrobirekin batera herriko bi bertsolarik bertsoz "mozkortu" zittuzten baztarrak.



Udalak kirodegiko frontoian jarri zeban haur parkian gozatu edarra hartu zeban neska mutikuak. Edadiak ez zeban inporta, txikixa izatia zan kontua. Eh Martin?



Aspaldiko partez, Gaztañerriak erosteko aukeria be izan da aurtan kalia. Erre ahala saldu ei dittue gaztainak. Datorren urterako Udaletxepian ipini bihar aterpe goxo bat...



Gaztetxeako Hamabostaldixan partehartze haundixa izan da. Gartzelen Kontrako Astiaren barruan, gartzeletako egoera larrixaren inguruko hitzaldixa eskeini zeban Salhaketa-k.





Oierri laguntzen diharduten bolondresetako batzuk Ezoziko plazako harmailetan Oierrekin batera.

## Oierri laguntzeko lanean batera

Urtebete inguru da Eitzakotxo base-rriko Oier Garmendia mutikoaren osasun egoera larriaren berri eman genuela (2003ko urria). Orduan, Oierren egoerari aurre egin eta oneratzeko bidean jartzeko tratamenduarekin hasi berriak zirela eta, bolondres beharrean zeudela jakinarazi ziguten Oierren gurasoek. Orduan 25 bolondresen laguntza zuten. Orain 50etik gora dira euren laguntza eskeintzen dieten pertsonak. Gurasoen ahalegin harriagarriari esker eta bolondresen laguntzarekin, Oierren osasun egoera asko hobetu da.

### Ageriko aurrerapenak

Urtebete baino gehiago da Philadelphian ezagututako tratamendua garatzen hasi zirenetik. Denbora horretan, Oierrek bi urterekin izan zuen istripuan jasadako burmuineko lesio larriek eragindako ezintasun fisiko, fisiologiko eta neurologikoek nabarmen egin dute hobera. Neurketen arabera, Oierrek 30 hilabeterekin bi hilabeteko haur baten garapen mentala zuen eta 55 hilabeterekin 22 hilabeteko garapena izatera heldu da. Begibistako aurrerapenen artean, eskuen mugikortasunean eta adierazkortasunean egindako aurrerapenak dira nabarietak. Orain pozik edo haserre dagoenean adierazi egiten du sentitzen duena, baita pertsona berriak ezagutzekoan dituen sentipenak ere. Lehen ia beti gaixo bazegoen, urtebete inguru da gaixotu ez dela eta orain gau guztian gozo lo egiten du gurasoen lasaitasunerako.

### Orain pozik edo haserre dagoenean sentimenduak adierazteko gauza da.

Hobekuntza horren adierazgarri da lehen azken hilabeteetan, besteak beste; hondartzara, kalera eta ikastetxera atera izana.

Urtebete honetan Italian izan dira bi aldiz tratamenduaren aurrerapenak neurtu eta etorkizunean landu beharreko arloak ezagutzen eta Errusian ere bai giharretako operazio bat egiten. Bi hilabete inguruko atsedena ostean berriz tratamenduari sendo ekingo diote hemendik aurrera.

### Bolondresetik eskerrona

Oierri laguntzera jo duten bolondresak, zeregin ezberdinetan aurkitu dute laguntzeko modua. Batzuk bitak (objektu, leku eta abarren irudiak) eta bestelako material didaktikoak prestatzen laguntzen dute (3.000 bit egin dituzte eta 12.000ra iritsi behar dute), beste batzuek etxean laguntzen diete gurasoei; ariketa fisikoak egiten, irakaspenetan eta bestelako lanetan. Bolondresak irakasle eta lagun bihurtu dira. Lan handia egiten dute baina beti behar da gehiago. Jonek eta Felik bihotzez eskertu nahi dute emandako laguntza guztia eta aurrera jarritzeko gogotsu daude.



Oier Olentzero eta Mari Dominginekin ikastetxian.

# Atxa Memoriala egitearen aldeko aldarrikapen lasterketa



Hirogeiren bat korrikalarik eskatu zioten Udalari antolatzaileekin berba egin eta memoriala berreskuratzeko ahalegina egin dezala.

Joan zen abenduaren 31an Urte-zahar Eguneako I. Herri Lasterketa antolatu zuten herriko hainbat korrikalarik. Lasterketaren helburua Atxa Memoriala

“arduragabekeriz” bertan behera gelditu izana salatu eta Udalari berriz antolatu dadin egin beharreko gestioak egin dituzala eskatzea izan zen.

*Laskurain frontoietan da berriz ia sei hilabete jokatu gabe egon eta gero*

Eskuetako mina zela eta ia sei hilabete frontoietatik kanpora egon eta gero, joan zen domekan Astelehengan jokatu zuen berriz Laskurainek. Chaffe izan zuen lagun Auxkin eta Galarza IVaren aurka eta 22 eta 9 galdu zuten partidua. Hasieran konfidentzarik gabe ibili bazen ere partidua aurrera egin ahala gustorago ibili zen Haritz. Baina Chafferren jokua ez zien asko lagundu eta azkenean ezin izan zioten partiduari bueltarik eman.

*Federatzeko epea zabalik dago eta mendi taldean egin liteke eguaztenetan*

Mendi taldeak jakinarazi duenez dagoeneko zabalik dago 2005ean mendizale federatu egiteko epea. Eguaztenetan izango da horretarako aukera, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara bitartean Errabal kaleko lokalean.

Bestalde 2005erako antolatutako mendi irteeren (17) egitarauaren berri ere eman nahi du mendi taldeak. Lehengo irteera urtarrilaren 23an egingo da Andoain-Urrietako Buruntza (441 m) mendira.

## EMAITZAK

### Futbola

-Urtarrilaren 8-9an  
SORALUZE 1 - Ilintxa 8 (Erreg.)  
(14. 16 taldeko sailkapenean)

Burumendi 7 - SORALUZE 1 (Jub.)  
(Azkenak 18 taldeko sailkapenean)

Atsedena (kadet.)  
(Azkenak 9 taldeko sailkapenean)

### Esku pilota

Gaztetxoan Gabonetako Txapelketa



### Benjamin mailan

1. Ibai Ariznabarreta
2. Gorka Santamaria
3. Iker Amezua

### Alebin mailan

1. Andoni Odriozola
2. Gorka Ojea
3. Iñaki Goenaga

### Infantil mailan

1. Haritz Albisua
2. Mikel Juaristi
3. Iker Benito

## AGENDA

### Futbola

SORALUZE - Segura (Erreg.)  
SORALUZE - Amara Berri (Juben.)  
Ikasberri - SORALUZE (kadet.)

### Mendi irteera

Urtarrilaren 23an  
Burumendira irteera.

تذکرہ ساجد علی صاحب

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81

تذکرہ ساجد علی صاحب

 **PASCUAL CHURRUGA, s.a.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE



# Lorea Elizburu

*“Munduari bueltia emotia nahiko neuke”*

Egunkaria erostera joan gara denda berrira eta hantxe aurkitu dugu Lorea, prentsa eta gozokiz inguratutik. Ez da kamara eta grabadorearekin ikaratu, baina susmatzen dugu larunbat goizetako sekreturik ez digula esan. Profesionala neska

## Izen-abizenak, adiña eta lanbidia.

Lorea Elizburu Larrañaga, 29 urte eta egunkari-saltzailia.

## Gustoko menua?

Sagardotegiko menua. Oin sasoiarekin gainera.

## Zer falta jako Plazentziari eta zer daka sobran?

Falta aparkalekuak, tabernetako girua be aldatu leike, danetan dago musika berdina eta. Sobran ez daka ezer.

## Amets bat?

Amets bat, izan nun... (hasi da kantuan Lorea). Munduari buelta bat emotia nahiko neuke.

## Zela ikusten dozu zure burua hamendik 10 urtera?

Buff, gaitza da galdera hori. Espero dot bikote batekin eta ume batekin egotia.

## Hiru desio.

Osasuna, aurrera jarraitzeko indarra eta pakia Euskal Herrirako.

## Noiz hasi zinan egunkari saltzen?

Oin urte eta erdi. Itziarrek pertsona bat bihar zeban lanerako eta neri esan zozan.

## Ze egunkari saltzen da gehixen eta zein gitxien?

17 desberdin saltzen doguz, gehixen Diario Vasco eta Gara. Gitxien La Razon eta Abc.

## Eta rebistak?

Buff... hainbeste dare... bihotzekuak, auto-motorrenak, musikakuak, akuarixuetan espezializatuak... danetik.

## Zein da zure lanan alderik onena eta txarrena.

Onena oso entretenidua dala, aspertzetik ez daguala. Aspertu ezkeror rebistak bertan dakazuz irakurtzeko.

Txarrena zapatuetan eta jai egunetan



Lorea Elizburu.

*“Segiduan igartzen da zein datorren juergatik eta zein doian mendira!”*

lan egin bihar dala.

## Jente asko juaten da parranda ostian egunkari billa?

Uda partian asteburuero bateron bat. Segiduan igartzen da zein datorren juergatik eta zein doian mendira. Batzuk rebista pikantien bila etortzen dira (eurendako ez dira izaten, eh!)

## Bertso Begiz

*Egunkariak, gizur egiak  
herriko jentiaeren komeriak.  
Danetik dago Agirrenian,  
baina beti umore onian.  
Eta bezero,  
hantxe dozu Lorea goizero,  
ezagutu nahi izanez gero.*

*Etxebarri*

*(doinua: Juana Bixentarena..)*

eta beste batzuk kantuan eta bertsoetan hasten dira.

## Zuk be gaupasaren bat egingo zenuan inoiz

Behin jaietako egun guztietan gaupasa eginda etorri nintzan lanera. Gero siestia egin eta berri-berri.

## Anekdotaren bat?

Jente askok pentsatzen dau Itziarren ahizta txikixa naizela, baina ez naiz.

## Beste ezer esatekorik?

Bai. Domekan aman eguna da eta zorientzia nahi dot.

## Zorionak gure partetik be.



**Hnos. BENITO ANAIK**

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**EDURTZA Kafetegia**

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Eguneroko menua eta pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

## Argazki zaharra



## Mende hasierako eskopetagileak

Ramiro Larrañagaren Soraluzeko monografia historikoan 1915. urteko argazki hau aurkitu dugu. Bertan, "Ignacio Aranguren" tailerreko armaginak ageri dira eskopeta bana eskuan dutela. Sasoi hartan arma-tailer txiki desberdinak zeuden herrian.

Ezkerretik eskumara, goian: Arsenio Maiztegi, Segundo Larreategi, Gregorio Gallastegi, Andres Ezenarro, Bergarar bat, Luis Aranguren eta "Pikutia".

Erdian: Ondarza "Baraterua", Antonino Goikoetxea, beste Bergarar bat, eta Ignazio Esnal "Azkoitti". Behean: Luis Larrea eta Ignacio Beistegi.

Iturria: Ramiro Larrañagaren *Soraluze / Placencia de las Armas Monografia Historicitik* ateratakoa.

## Lehiaketa



Zer dago faltan edo zer soberan argazki honetan?

*Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!*

DEITTU

943 75 13 04 ra

*Aurreko alean...*



Estazio kaleko etxebizitzetako ganbarako lehiotxo.

erantzuna...

**...eta irabazlea:  
Maite Elizburu**



**gizarte ekintza**



**Kiru  
Muntaiak S.L.**

**Blas Elizburu Kortabarria**

Sukalde, enpotratu eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara

Tfnoa 943 75 13 12

Eskuko tfnoa 615 70 27 65





Alkatxofa frijituak txerri urdai, garaiko onddo, zigalaxo, zigarlatxo, arbendol txigortu eta udazkeneko zukuarekin.  
Tubal jatetxea

## Euskal produktuak gure sukaldean

Urtarrilaren **23**tik aurrera  
egunero fitxa bat **DOAN** BERRIarekin



*Jantzi mantala eta hasi sukaldean!*

Laguntzaileak:



Gipuzkoako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Gipuzkoa

Euskaldunok behar dugun

**berria**



50 produktu 50 jatetxe

Fagollaga jatetxea, Zuberoa jatetxea, Mugaritz jatetxea, Akelarre jatetxea, Tubal jatetxea, Etxebarri erretegia, Hartza jatetxea, Argomaniz Paradores, Borda Berri jatetxea, Currito jatetxea, Les Pyrénées jatetxea, Portalón jatetxea, Fronton jatetxea, Astelena jatetxea, Casa Nicolasa jatetxea, Aloña Berri jatetxea, Martinez jatetxea, Etxanobe jatetxea, Casa Manolo jatetxea, Elkano jatetxea, Kabia jatetxea, Izkiña jatetxea, Jokin jatetxea, Urepel jatetxea, Txoko jatetxea, Leioako Ostalaritza Eskola, Goizeko Kabi jatetxea, Don Pablo jatetxea, Zelai Zabala jatetxea, Etxeberri jatetxea, Pierre Oteiza jatetxea, La Cuchara de San Telmo jatetxea, Casa Julian jatetxea, Etxalarko fonda, Morase jatetxea, Aratz jatetxea, La Boule jatetxea, Ramon Roteta jatetxea, Baserri jatetxea, Hotel Europa jatetxea, Etchepare hotela, Euskal Biskotx erakustokia, Bakea jatetxea, Las Torres ostatu-jatetxea, Alhambra jatetxea, Dolarea jatetxea, Angelita Alfaro, Zortziko jatetxea, Labekoa jatetxea.



# Larrialdia Asiako Hegoaldean



Milaka haur  
babesik gabe



**ZURE LAGUNTZAREN ZAIN**

BBVA 0182 1300 18 0000891985

KUTXA 2101 0001 13 0003108016

EUSKADIKO KUTXA 3035 0060 41 0600038926

**KOMISIORIK GABE**

unicef 

# GILATABERNA

Zorionak eta urte berri on!

*Goizeko 6:30etatik aurrera zabalik  
Gosarixak eta pintxo goxo goxuak!*

Errabal kalea 15, Telf. 943 751834